

M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA ANDREA,
 OIARTZUNGO UDALAREN IDAZKARI
 NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2019ko martxoaren 27an, beste batzuen artean ondorengo Akordioa hartu zuela:

2019 URTEAN OIARTZUNEN AURREIKUSITAKO KULTUR EKITALDIAK ANTOLATZEKO HERRIKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZEN BANAKETA ETA ORDAINKETAREN ONARPENA.

2018ko irailaren 26an Oiartzungo Udaltzako Osoak “Oiartzungo Udalak ematen dituen diru laguntzak arautzeko Ordenantza”ri haserako onespina eman zion.

Espedientea jendaurrean jarri zen urriaren 11tik aurrera 30 eguneko epeaz eta inolako erreklamaziorik ez zenez jaso, behin betiko bihurtu zen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko azaroak 30ean argitaratu da.

Kultura Batzordeak abenduak 14ean proposatu zituen “2019an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeke diru laguntzak banatzeko oinarriak”; hauen xedea, 2019an zehar, Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzen dituzten herri eragileei, norgehiagokako prozeduraren bidez, diru laguntzak banatzeko Oiartzungo Udalaren diru laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea. Udal Osoko Bilkurak 2019ko abenduak 19an onartu zituen oinarriok

Diru laguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 diru laguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2019-2021rako diru laguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

Eskaerak aurkezteko epea urtarrilak 1etik 31a arte ireki zen. Kultura teknikariak aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, puntuaketa ezarri die idatzitako txostenean agertzen den bezala eta 2019ko otsailaren 22an egindako Kultura Batzordera eraman du dirulaguntzak banatzeko proposamena. Proposamenari aldeko diktamena eman dio Kultura Batzordeak.

Guzti hau kontuan hartuta, Udaltzarak honako erabakia hartu du:

LEHENA: 2019an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak herriko elkartei banatzea eta ordaintzea honako taulan agertzen den moduan:

AURRIKUSITAKO DIRULAGUNTZAK 2019			
ELKARTEA/EKINTZA	PUNTUAK	ESKATUTAKOA	ZENBATEKOA
Elizalde Bertso Bazkaria	61	800 €	800 €
Flauta Jaialdia	48	1.450 €	1.450 €
UKT Pailazoak	88	250 €	250 €
Olentzero Laguntzaileak	74	3.362 €	3.362 €
Comete Sarea	23	300 €	300 €
Oidultz	44	1.800 €	1.800 €

Ibargain Musika Eskola	65	4.833 €	4.111 €
Soinu Zahar Aurreku	48	1.207 €	1.207 €
Elizalde Dantza Jaialdia	59	150 €	150 €
Elizalde Ihote Karroxa	63	878 €	878 €
Haur Filosofia	63	1.040 €	1.040 €
Hitzen Lihoa	77	6.225 €	4.870 €
Organozaleak	79	3.000 €	3.000 €
Bertso Saio Musikatua	38	2.070 €	2.070 €
Bertso Desafioa	33	630 €	630 €
21 Aulki	57	2.300 €	2.300 €
Garagardo Azoka	84	3.000 €	3.000 €
Sagardo Eguna	63	1.458 €	1.458 €
Dantzari Txiki	68	1.500 €	1.500 €
Haurtzaro Dantza Jaialdia	76	1.160 €	1.160 €
Raketistak	44	500 €	500 €
Euskal Jaia	57	2.780 €	2.780 €
Oihartzun Guk	68	5.600 €	3.913 €
			42.529 €
	PUNTUAK	ESKATUA	DIRU-ATALA
	1380	46.293 €	43.250 €
Deialdiarekin bat ez datozenak:	Arrazoiak:		
Bertso saioa Xanistebanak	Oinarrien 2. artikulua: beste programa batetik bideratzen da		
Bertso bazkaria Ugaldetxon	Oinarrien 2. artikulua: beste programa batetik bideratzen da		
Perpignan dantza emanaldia	Oinarrien 2. artikulua: ez da Oartzunen ekintza		
Ettxerat bertso saioa	Oinarrien 1. artikulua: ez da 2019ko ekintza		

BIGARRENA: Dirulaguntzak ordaintzeko 43.250 €ko gastu-onarpena egitea, aurrekontuko 1 0801.481.334.00.01.2019 diru-atalaren kontura.

HIRUGARRENA: Oinarrietan jasotzen den bezala, honako ordainketa modua onartzea: %80a ordaintzea banaketa onartzerakoan egitea eta gainerako %20 interesatuek gastuak justifikatu ondoren onartzea.

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oartzunen, 2019ko martxoaren 28an.

O.I.
ALKATEAK,